# PRAKTIKA ARTISTIKOEN ETA KULTURA-IKASKETEN MASTERRA:
gorputza, afektuak, lurraldea

# MÁSTER EN PRÁCTICAS ARTÍSTICAS Y ESTUDIOS CULTURALES:
cuerpo, afectos, territorio




Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Praktika artistikoen eta kultura-ikasketen masterra: gorputza, afektuak, lurraldea
3. orrialdea

Máster en Prácticas artísticas y estudios culturales: cuerpo, afectos, territorio
Pág. 19

# gorputza afektuak lurraldea

2021 - 2022 ikasturtea

Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

www.centrohuarte.es/master

# PRAKTIKA ARTISTIKOEN ETA KULTURA-IKASKETEN MASTERRA:
## gorputza, afektuak, lurraldea

**Izena.** Praktika Artistikoak eta Kultur Ikasketak: Gorputza, Afektuak, Lurraldea Berezko Masterra.

**Kredituak.** 62 ECTS.

**Iraupena.** 2021eko urria - 2022ko ekaina.

**Modalitatea.** Erdipresentziala.
Moduluak modu independentean egiteko aukera.

**Hizkuntzak.** Gaztelera, euskera eta ingelera.

**Ordutegiak.** Aurrez aurreko eskola trinkoak hilean astebetez (astelehenetik ostegunera, goiz eta arratsaldez), urria eta maiatza artean.

Hilean hiru aste: bi online saio sinkrono (astelehenetan eta asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara).

Gainerako online saioak: asinkronoak (antolaketa ikasle bakoitzaren esku).

**Non egingo da.** Plataforma birtuala eta Uharte Zentroa.

**Prezioa.** 23 € / kreditua. Uharte Zentroak dirulaguntzak eskaintzen ditu.

**Titulua eskuratzeko baldintzak.** Irakasgaiak gainditzea eta MALa aurkeztea.

**Nori zuzenduta.** Ikerketa, ikasketa kulturalak eta praktika artistikoak bateratzeko guneak aztertu nahi dituzten ikasleei eta arte- eta kultura-arloko profesionalei zuzenduta dago (artistak, teorialariak, ikertzaileak, komisarioak, hezitzaileak, etab.).

# Aurkezpena

*Praktika Artistikoak eta Kultur Ikasketak: Gorputza, Afektuak, Lurraldea* masterra modu independentean egin daitezkeen lau modulutan banatutako berezko titulu erdipresentziala da. Hainbat herrialdetako artistek, ikerlariek eta unibertsitateko irakasleek osatzen dute irakasle-zerrenda.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroak (Uharte Zentroa), Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) sustatuta, akademiaren eta arte garaikidearen arteko topagunea da master hau, non esperimentazio metodologikoa eta pedagogia kokatuak diren nagusi. Diziplinaz gaindiko ikerketa esparru bat eskaintzea du helburu, egungo praktika artistikoak birpentsatzeko aukera egon dadin.

Programak hiru ikerketa-lerro ditu ardatz (modu independentean egin daitezke 16 ECTS kredituko Unibertsitateko Aditu titulua lortzeko):

**Generoa eta bisualitateak:** teoria feministen eta ikerketa bisualen, artistikoen eta performatikoen arteko elkarguneak aztertzean jartzen du arreta.

**Lurraldea:** alde batetik, Euskadiko eta Nafarroako kultura-ikerketen edukiak biltzen ditu, eta, bestetik, kultura-ekologienak.

**Afektuak eta ezagutza kokatua:** praktika artistikoan eta artearen ikerketan pentsatzeko orduan afektuek duten garrantzia aztertzen du.

Aldi berean, badago praktika artistikoan oinarritutako ibilbide bat, hori ere era independentean egin daitekeena Unibertsitate Espezializazio titulua eskuratzeko (32 ECTS kreditu).

**Praktika artistikoak:** tokiko eta nazioarteko artistek zuzendutako lantegi trinkoak, sormen laborategiak, banakako ikerketa lan bat (MALa) eta taldekako beste bat.

## Ikasketak egiteko arrazoiak

Master honek ikerketarako esparru teoriko-praktikoa eskaintzen du, eta online lana eta aurrez aurreko lantegi, eskola eta konferentziak uztartzen ditu. Gogoetarako, eztabaidarako eta ezagutza ekoizpenerako tokiko esparru bat sortzea da programaren helburua, betiere beste testuinguru geografikoekin eta errealitateekin lotura eta elkarlana mantenduta.

Ikasturtean zehar artearen ikerketarako tresnak eta metodologiak ikasteko, partekatzeko, aplikatzeko eta garatzeko aukera izango dute ikasleek, banakako zein taldekako proiektuak burutzeko helburuarekin. Horretarako behar diren bitartekoak edukiko dituzte eskura: praktika artistikorako baliabide teknikoak eta espazioak Uharte Zentroan, baita masterreko irakasleen laguntza eta gidaritza ere.

Ikasleen eta ikasle eta irakasleen arteko harremana eta feedbacka sustatuko da, praktiketan eta taldekako proiektuetan parte hartzea ahalbidetuz eta taldekako prozesuen garapena erraztuz. Bide emango zaie elkarrizketa irekiei, diziplinartekotasunari eta hainbat begirada eta ikuspuntu antolatzeari, ikasturtean zehar proiektuetan eta irakasgaietan sakontzeko balio izango baitute.

Ikasleak tokiko sare kultural eta artistikora hurbiltzea da ikasketa-programarekin lortu nahi dena, publikoari irekitako jardueren bidez, eta masterraren eta artista-elkartearen arteko zubiak eraikitzeko balio duten proposamenen bidez.

*Praktika Artistikoak eta Kultur Ikasketak: Gorputza, Afektuak, Lurraldea* masterra diziplinarteko programa bat da. Bertan, praktika artistikoa ezagutza modu gisa eta ikerketarako metodologia gisa ulertzen da, ikuspegi zabalean eta teoria eta pentsamendu kritikoari lotuta. Edukiek hainbat aspektu aztertzen dituzte, praktika artistikoak eta egungo errealitatea pentsatzeko funtsezkoak direnak, ikuspuntu kokatu eta gorpuztutik.

# Ikerketa-lerroak

## g

### Generoa eta bisualitateak

Feminismoek presentzia- eta irudikapen-espazioaren itxuraldaketan izan duten garrantzia birpasatzen du lerro horrek, esparru artistikoari berezko zaiona. Artearen esparruan eta irudiaren ikerlanetan kanona zalantzan jartzeak modernotasunak artistikoa dena ulertzeko moduen paradigma aldatu du, eta begiratzeko beste modu batzuk ere eragin ditu.

Ikerketa-lerroak biltzen dituen irakasgaietan ikerketa artistikorako estrategiak ikuspuntu feministetatik aztertzen dira, esparru artistikoaren diskurtso hegemonikoetan esku hartzeko eta historia eta genealogia feministak eraikitzeko. Ikasketa feministak eta genero ikasketak ezin dira emakumeen ingurukoak soilik izan; gizonen menderatzea eusten duten sistema ideologikoak ere landu behar dira. Ideia hori oinarritzat hartuta, ikuspegi feministetatik egiten diren ikerketek eta praktikak zalantzan jartzen dute sistema horiek arte- eta kultura-esparruan duten nagusitasuna.

Gorputzak hartzen duen zentralitatea aztertzen da —ikusmen-arteetan norabide performatibo esaten zaionetik abiatuta—, baita presentziaren eta materialtasunaren garrantzia ere, tentsio politikoak eta nortasunekoak inskribatzen diren toki gisa. Lerro horri dagokion programak saio teorikoak tokiko zein atzerriko esperientzia praktikoen eta kasu-azterketen analisiarekin batzen ditu, praktika artistikoak eraldatzeko gai diren estrategia feministak imajinatzen laguntzen dutenak.

# >1

## Lurraldea

Masterraren helburuetako bat pentsamendu kritikoa piztea da, geure burua gorputz kokatu gisa jarriz, baita elkarri eragiten diogun eta ohiko praktikak eraikitzen ditugun testuinguru geografiko eta kulturalean ere. Zentzu horretan, ikasketa-programak etengabeko elkarreragina dauka bertako gauzekin, eta garatzen diren testuinguruaren ezagutza- eta hausnarketa-belaunaldiarekin konprometituta dago.

Alde batetik, euskal-nafar kultura ikasketak ardatz dituzten irakasgaiak biltzen ditu lerro horrek: azken hamarkadetan esparru politiko, estetiko eta kulturala zehaztu duten identitate-eraikuntza eta atxikipenekin erlazionatutako gaiei modu kritikoan heltzen zaie irakasgai horietan. Aldi berean, lurraldearen eta memoria historikoaren eta egunerokoaren arteko eragina aztertzen da.

Beste aldetik, ekoizpen kultural-artistikoaren eta landa-eremuaren arteko erlazioa lantzen da, landa-eremuaren erromantizazioa zalantzan jarriz, eta nekazaritzako industria ereduari kritika egiten zaio. Kultura-ekologien auzia lerroaren erdigunean kokatzen da modernitatearen beharrezko gainbeheraren aurrean denon artean egiten dugun bizitza antolatzeko moduak birpentsatzeko. Horretaz gain aztertuko dira: ingurumenaren garrantzia gure gizarte- eta kultura-praktikak antolatzeko orduan, landareen bizitzaren inguruko eztabaida etikoak, eta natura deitzen dugun guztiaren agentzia politikoa eta estetikoa.

>a

## Afektuak eta ezagutza kokatua

Teoria feministek erronka gogorrak aurkeztu dizkiete epistemologia nagusiei, eta ezagutza ezagutzeko eta sortzeko modu hegemonikoetatik aldendu dira, nork ezagutzen eta nondik ezagutzen duen esplizituki azaltzearen garrantzia planteatuta.

Gorputza, enpatia eta afektuak, tradizio filosofikoko prozesu kognitiboetatik at, gure esperientzia epistemikoaren elementu nagusi izan ohi dira. Ezagutza kokatu mota bat osatzen dute, eta hortik abiatuta ikertzeko ditugun moduak birpentsatu daitezke, baita ikerketan ari den eta ezagutza osoa ez daukala dakien banako baten eraikuntza-aukerak ere. Arrazoimenaren herentzia ilustratuak ukatu egiten du gorputza ezagutzaren prozesuen bitarteko denik, eta gorputzarekin batera, norbanakoaren esperientzia eta eraginak sortzeko eta jasateko gaitasuna ere baztertzen ditu, ustezko objektibotasunaren bila, nahiz eta hori inoiz ez den neutroa.

Elkartzearen garrantzia azpimarratzen du lerro horrek, batera egotea eta elkarlanean aritzea, eta ikerketa edo sormen prozesua taldekako negoziazio bihurtzea. Zentzu horretan, artearen eta artisten kontakizun hegemonikotik aldentzen da, eta artistikoa dena nola pentsatu, aztertu eta kontzeptualizatu dugun aldatu ahal izateko afektibitateak duen garrantzia nabarmentzen du. Afektuek eta zaintza-ekintzek prozesuetan eta ekoizpen-, analisi- eta artearen eta irudien harrera-sistemetan duten garrantzia azpimarratzen dute lerroa osatzen duten irakasgaiek.

**Bost titulazio egin daitezke guztira, moduluak honela elkartuz gero:**

g

### Unibertsitateko Aditua: Generoa eta Kultur Ikasketak (16 ECTS)

Titulu hori eskuratzeko Generoa eta Bisualitateak moduluko 12 kreditu egin behar dira gutxienez (Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak irakasgaia (6 ECTS) + hautazko 6 ECTS) eta edozein moduluko beste 4 kreditu.

l

### Unibertsitateko Aditua: Kultur Ikasketak eta Lurraldea (16 ECTS)

Titulu hori eskuratzeko Lurraldea eta Kultura-ekologiak moduluko 12 kreditu egin behar dira gutxienez (Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak irakasgaia (6 ECTS) + hautazko 6 ECTS) eta edozein moduluko beste 4 kreditu.

a

### Unibertsitateko Aditua: Kultur Ikasketak, Afektuak eta Ezagutza Kokatua (16 ECTS)

Titulu hori eskuratzeko Afektuak eta Ezagutza kokatua moduluko 12 kreditu egin behar dira gutxienez (Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak irakasgaia (6 ECTS) + hautazko 6 ECTS) eta edozein moduluko beste 4 kreditu.

### Praktika Artistikoan Espezializazio Diploma (32 ECTS)

Titulu hori eskuratzeko Praktika Artistikoak moduluko nahitaezko 18 kreditu egin behar dira gutxienez (Sormen laborategiak, taldekako lana eta IALa irakasgaiak) eta hautazko 14 kreditu, 8 gutxienez Praktika Artistikoak modulukoak (lantegiak artistekin) eta edozein moduluko beste 6 kreditu.

### Berezko Masterra. Praktika Artistikoak eta Kultur Ikasketak: Gorputza, Afektuak, Lurraldea (62 ECTS)

Titulu hori eskuratzeko nahitaezkoak diren hiru irakasgaiak egin behar dira (Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak (6 ECTS), Sormen laborategiak (6 ECTS), Taldekako lana (6 ECTS)), edozein moduluko hautazko 38 kreditu eta Master Amaierako Lana (6 ECTS).

| Modulua | Edukiak | Nahitaezkoa / Hautazkoa | Eskola orduak | Kredi-tuak |
|---|---|---|---|---|
| Generoa eta Bisualitateak | - Kultura bisuala eta generoa I | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Kultura bisuala eta generoa II | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Esku-hartze feministak artean eta kulturan I | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Esku-hartze feministak artean eta kulturan II | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Praktika artistikoak eta ezagutza kokatua | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Gorputza, presentziak eta irudikapenak | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak: feminismoak, afektuak eta lurraldea | Nahi. aurrez aurrekoa | 48 | 6 |
| Lurraldea | - Ekologia eta fenomenologia | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Euskal kultura ikasketak I | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Ekoizpen artistiko-kulturala eta landa-eremua | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Euskal kultura ikasketak II | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Kultura-ekologiak | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Lurraldea eta memoria | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak: feminismoak, afektuak eta lurraldea | Nahi. aurrez aurrekoa | 48 | 6 |
| Afektuak eta ezagutza kokatua | - Estetika pentsatzea afektuetatik abiatuta | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Afektuak eta praktika artistikoak | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Afektuen eta emozioen zirkulazioa I | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Afektuen eta emozioen zirkulazioa II | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Inderdependentzia, zaintza eta bizitzaren jasangarritasuna | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Lana artean eta zaintzan | Haut. online | 16 | 2 |
| | - Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak: feminismoak, afektuak eta lurraldea | Nahi. aurrez aurrekoa | 48 | 6 |
| Praktika Artistikoak | - Taldekako lana | Nahi. aurrez aurrekoa | 32 | 4 |
| | - Sormen laborategiak | Nahi. aurrez aurrekoa | 48 | 6 |
| | - Zero Azpitik. Lantegiak artistekin (8 lantegi) | Haut. aurrez aurrekoa | 16 / lantegi | 2 |
| | **Master Amaierako Lana** | Nahitaezkoa | | 6 |

## Helburuak

- Praktika eta ikerketa artistikoaren bidez pentsamendu kritikoa sustatzea, lan egiteko metodologiak eta norberaren diskurtso teoriko-praktikoak sortzeko helburuarekin.

- Ezagutza teorikoa garatzea, ulertzea eta aplikatzea praktika artistikoan eta ikerketa kultural eta bisualetan.

- Masterraren berezko gaiekin (gorputza, generoa, lurraldea, ekologia kulturalak, afektuak) erlazionatutako ikerketa-hipotesiak aztertzea eta eratzea egungo praktika bisual eta kulturalei buruz.

- Diziplinaz gaindiko metodologia-tresnak aplikatzea praktika artistikoen, teoria kritikoaren eta ikusizkoen eta kultura ikasketen zenbait esparrutan.

- Ahozko eta idatzizko komunikaziorako tresnak eta gaitasunak hobetzea artearen esparruko ikerketa lan bat aurkezteko.

- Praktika artistikoek eta kultura bisualak egungo pentsaeran duten garrantzian sakontzea.

- Egungo praktika artistikoen egoera ezagutzea, baita teoria kritikoarekiko eta ikasketa kulturalekiko duten erlazioa ere, egungo artea ulertzeko oinarria baitira.

## Metodologia

Masterrak online eskolak (sinkronoak eta asinkronoak) eta aurrez aurreko eskolak batzen ditu.

Praktika artistikoei buruzko modulua aurrez aurrekoa da eta honako hauek biltzen ditu: artistek emandako 8 lantegi trinko eta artistek eta Arte Ederretako irakasleek zuzendutako sormen laborategi bat. Horretaz gain, ikasleek masterreko irakasleren batek zuzendutako banakako lan bat (MALa) eta taldekako beste bat egingo dute, programaren ikerketa-lerroetako baten baitan (generoa eta bisualitateak, lurraldea, afektuak eta ezagutza kokatua).

Lehenengo hiru moduluak Generoa eta bisualitateak, Lurraldea eta Afektuak eta ezagutza kokatua online modalitatekoak dira bereziki, eta saioak sinkronoak (irakaslea eta ikasleak une berean) zein asinkronoak (ikasleek haien kabuz online lan egitea: irakurgaiak, jarduerak, ariketak) izan daitezke. "Ikerketarako metodologiak eta epistemologia kokatuak: feminismoak, afektuak eta lurraldea" irakasgaia hiru moduluetan ageri da eta aurrez aurreko saio batzuk ditu, baina online egiteko aukera dago behar izanez gero.

Behar dituzten tresna metodologikoak emango zaizkie ikasleei irudietan eta praktika artistiko eta kulturaletan modu kritikoan pentsatu dezaten, sortzen diren inguruneari dagokionez eta ikuspuntu kokatutik. Ikerketarako, idazteko eta proiektuen materializaziorako hainbat metodologia landuko dira, taldekako proposamen eta proiektuetarako eta lan indibidualak garatzeko balioko dutenak. Ikerketa, teorikoa zein praktikoa, ingurunearekiko konpromiso kolektibo gisa ulertuko da.



## Irteera profesionalak

- Praktika artistikoak
- Erakusketen komisariotza
- Kultura- eta arte-kudeaketa
- Arte- eta kultura-kritika
- Museoetan eta arte- edo kultura-zentroetan lan egitea
- Arte-hezkuntza
- Ikerketa artistikoa edota akademikoa
- Irakaskuntza

## Batzorde akademikoa

Hauek osatzen dute masterraren zuzendaritza akademikoa:

- Maite Garbayo Maeztu (Universitat Oberta de Catalunya, Arte eta Giza Ikasketak).
- Amaia Arriaga Azkarate (NUP, Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila).
- Iñaki Imaz Urrutikoetxea (EHU/UPV, Pintura Saila).

Oskia Ugarte Abarzuzak, Betisa Ojanguren San Millánek, Nerea de Diego Murillok eta Elisa Fernández Artetak (Uharte Zentroko zuzendaritza taldeko kideak) biribiltzen dute batzorde akademikoa.

## Irakasleak

Aurki zehaztuko dira.
Bakoitzaren arloan ospe handia duten artistek eta pentsalariek osatuko dute irakasle-taldea.

## Onarpen prozesua

Matrikula egiteko dokumentu hauek eman behar dira:

- CVa edo artistaren portafolioa.

- Motibazio gutuna, honakoak azalduz: ikasketa-programarekiko interesa, programaz espero dena eta norberaren ibilbide artistikoarekin / akademikoarekin duen lotura.

- Gradu titulua edo baliokidea*

Hautaketa prozesuan, antzeko Lizentziaturak / Graduak egin dituzten ikasleei emango zaie lehentasuna.

*Edozein unibertsitateko graduko azken urtean dauden ikasleek ikasketak bukatu aurretik eman ahalko dute izena. Ikasturtea hasi aurretik aurkeztu beharko dute unibertsitate titulua.

## Dirulaguntzak

Uharte Zentroak matrikularen zati bat betetzeko bekak emango ditu Nafarroan bizi diren ikasleentzako. Dirulaguntzak emateko baldintzak datozen egunetan zehaztuko dira helbide honetan:

**www.centrohuarte.es/master/eu**

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

www.centrohuarte.es/master

# cuerpo
# afectos
# territorio

2021 - 2022

Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

www.centrohuarte.es/master

# MÁSTER EN PRÁCTICAS ARTÍSTICAS Y ESTUDIOS CULTURALES:
## cuerpo, afectos, territorio

**Título.** Máster Propio en Prácticas Artísticas y Estudios Culturales: Cuerpo, Afectos, Territorio.

**Créditos.** 62 ECTS.

**Duración.** Octubre 2021- Junio 2022.

**Modalidad.** Semipresencial.
Posibilidad de cursar módulos de forma independiente.

**Idiomas.** Castellano, euskera, inglés.

**Horarios.** Una semana presencial intensiva cada mes (de lunes a jueves, mañana y tarde), entre octubre y mayo.

Tres semanas al mes: dos sesiones síncronas en línea (los lunes y miércoles de 19-21h).

Resto de sesiones en línea: asíncronas (organizadas por el/la estudiante).

**Lugar de desarrollo.** Plataforma virtual y Centro Huarte.

**Importe.** 23€ /crédito. El Centro Huarte ofrece una bolsa de becas.

**Requisitos obtención del título.** Superación de las asignaturas y presentación del TFM.

**Personas destinatarias.** Dirigido a estudiantes y a profesionales del ámbito artístico y cultural (artistas, teóricos/as, investigadores/as, comisarios/as, educadores/as…) interesados/as en explorar puntos de convergencia entre la investigación, los estudios culturales y las prácticas artísticas.

# Presentación

El *Máster en Prácticas Artísticas y Estudios Culturales: Cuerpo, Afectos, Territorio* es un título propio semipresencial organizado en cuatro módulos que pueden cursarse de forma independiente. Su plantilla docente la componen artistas, investigadores/as y profesores/as universitarias/os procedentes de distintos países.

Impulsado por el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte (Centro Huarte), la Universidad Pública de Navarra (UPNA) y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), el Máster es un espacio de encuentro entre la academia y el ámbito del arte contemporáneo en el que priman la experimentación metodológica y las pedagogías situadas. Su objetivo es proporcionar un marco de investigación transdisciplinar desde el que repensar las prácticas artísticas contemporáneas.
El programa se organiza en torno a tres líneas de investigación (que pueden cursarse de forma independiente para obtener una titulación de Experto/a Universitario/a de 16 créditos ECTS):

**Género y visualidades:** centrada en analizar las intersecciones entre las teorías feministas y los estudios visuales, artísticos y performáticos.

**Territorio:** incorpora contenidos de estudios culturales vascos y navarros, por un lado, y de ecologías culturales, por el otro.

**Afectos y conocimiento situado:** explora la importancia de los afectos para pensar las prácticas artísticas y la investigación en arte.

Paralelamente, se desarrolla un itinerario basado en la práctica artística, que también puede cursarse de forma independiente, para obtener un título de Especialización universitaria (32 créditos ECTS).

**Prácticas artísticas:** compuesto por talleres intensivos dirigidos por artistas locales e internacionales, laboratorios de creación, un trabajo de investigación personal (TFM) y otro colectivo.

## ¿Por qué cursar estos estudios?

Este Máster ofrece un espacio de investigación teórico-práctica que combina el trabajo online con talleres, clases y conferencias presenciales. El programa pretende generar un ámbito de reflexión, debate y producción de conocimiento anclado en lo local, pero en estrecho contacto e intercambio con otros contextos geográficos y otras realidades.

Durante el curso las/os estudiantes podrán aprender, compartir, aplicar y desarrollar herramientas y metodologías de investigación en arte para llevar a cabo proyectos tanto individuales como colectivos. Para ello, contarán con los recursos necesarios: medios técnicos y espacios para la práctica artística en las instalaciones del Centro Huarte, pero también con el acompañamiento y la tutorización del profesorado del Máster.

Se fomentará la interrelación y la retroalimentación de los/as estudiantes entre sí y con el profesorado, proponiendo la implicación en prácticas y proyectos colectivos, y facilitando el desarrollo de procesos colaborativos. Se propiciarán también el diálogo abierto, la interdisciplinareidad, y la articulación de diversas miradas y perspectivas, que servirán para profundizar en los proyectos y asignaturas a lo largo del curso.

El programa de estudios buscará acercar al alumnado al tejido cultural y artístico local, mediante la realización de actividades abiertas al público, y a partir de propuestas que tiendan puentes entre el Máster y la comunidad artística.

El *Máster en Prácticas Artísticas y Estudios Culturales: Cuerpo, Afectos, Territorio* es un programa interdisciplinar que entiende la práctica artística como forma de conocimiento y como metodología de investigación, desde una perspectiva ampliada y en relación a la teoría y al pensamiento crítico. Sus contenidos exploran diferentes aspectos, fundamentales para pensar las prácticas artísticas y la realidad contemporánea, desde una perspectiva situada y encarnada.

# Líneas de investigación

## C

### Género y visualidades

Esta línea revisa la importancia que los feminismos han tenido en la reconfiguración del espacio de presencia y representación propio del campo artístico. El cuestionamiento del canon en el ámbito del arte y los estudios de la imagen, ha supuesto un cambio de paradigma con respecto a las formas de entender lo artístico propias de la modernidad, así como una apertura a nuevas formas de mirar.

En las asignaturas que componen la línea, se indagan estrategias de investigación artística desde perspectivas feministas, para intervenir los discursos hegemónicos del ámbito artístico, y construir historias y genealogías feministas. Partiendo de la base de que los estudios feministas y los estudios de género no pueden ser únicamente sobre mujeres, sino sobre los sistemas ideológicos que sustentan la dominación masculina, la investigación y la práctica desde perspectivas feministas, ponen en cuestión la prevalencia de esos mismos sistemas dentro del ámbito artístico y cultural.

Se analiza también la centralidad que adquiere el cuerpo a partir del llamado giro performativo en las artes visuales, y la importancia de la presencia y la materialidad como lugar en el que se inscriben tensiones políticas e identitarias. El programa de esta línea intersecta sesiones teóricas, con el análisis de experiencias prácticas y casos de estudio locales y foráneos que nos ayudan a imaginar estrategias feministas capaces de transformar las prácticas artísticas.

>t

## Territorio

Uno de los objetivos principales del Máster es activar el pensamiento crítico, a partir de posicionarnos como cuerpos situados, también en el contexto geográfico y cultural en el que interactuamos y construimos prácticas comunes. En este sentido, el programa de estudios está en continua interacción con lo local, y comprometido con la generación de conocimiento y reflexión sobre el contexto en el que se desarrolla.

Esta línea acoge, por un lado, asignaturas centradas en estudios culturales vasco-navarros, en las que se abordan de forma crítica cuestiones relacionadas con las construcciones y adscripciones identitarias que en las últimas décadas han determinado el campo político, estético y cultural. Al mismo tiempo, se explora la interacción entre territorio y memoria histórica y cotidiana.

Por otro lado, se aborda la relación entre producción cultural-artística y ruralidad, a partir de un cuestionamiento de la romantización de lo rural, que pone sobre la mesa la crítica al modelo agroindustrial. La cuestión de las ecologías culturales ocupa en esta línea un lugar central para repensar nuestras formas de organizar la vida en común frente al necesario colapso de la modernidad. También, se analizarán la importancia del medioambiente en la configuración de nuestras prácticas sociales y culturales, las cuestiones éticas que rodean a la vida vegetal y la agencia política y estética de aquello que denominamos naturaleza.

a

## Afectos y conocimiento situado

Las teorías feministas han planteado profundos desafíos a las epistemologías dominantes, y se han desidentificado de las formas hegemónicas de conocer y de generar conocimiento, planteando la importancia de explicitar quién conoce y desde dónde conoce.

El cuerpo, la empatía y los afectos, excluidos del análisis de los procesos cognitivos en la tradición filosófica, son a menudo elementos centrales de nuestra experiencia epistémica. Constituyen un tipo de conocimiento situado desde el que repensar las formas en las que investigamos y las posibilidades de construcción de un sujeto que investiga consciente de que no posee un saber completo. La herencia ilustrada de la razón excluye el propio cuerpo como elemento mediador en los procesos de conocimiento, y con él la experiencia individual y la capacidad de afectar y ser afectada/o, en pos de una supuesta objetividad que en realidad nunca es neutra.

Esta línea enfatiza la importancia del encuentro, del estar y el trabajar juntas/os, de convertir el proceso de investigación/creación en una negociación colectiva. En este sentido, se desvía del relato hegemónico sobre el arte y las/os artistas, y pone el acento en la relevancia de lo afectivo para reconfigurar las formas en las que hemos pensado, analizado y conceptualizado lo artístico. Las distintas asignaturas que componen la línea, subrayan la importancia de los afectos y los actos de cuidado en los procesos y en los sistemas de producción, análisis y recepción del arte y las imágenes.

**Son cinco en total las titulaciones que pueden cursarse, combinando los módulos de la siguiente manera:**

### Experto/a Universitario en Género y Estudios Culturales (16 ECTS)

Para obtener este título hay que realizar al menos 12 créditos del módulo de Género y Visualidades (la asignatura Metodologías de investigación y epistemologías situadas 6 ECTS + 6 ECTS optativos) y 4 créditos de cualquier módulo.

### Experto/a Universitario en Estudios Culturales y Territorio (16 ECTS)

Para obtener este título hay que realizar al menos 12 créditos del módulo de Territorio y Ecologías Culturales (la asignatura Metodologías de investigación y epistemologías situadas 6 ECTS + 6 ECTS optativos) y 4 créditos de cualquiera de los módulos.

### Experto/a Universitario en Estudios Culturales, Afectos y Conocimiento Situado (16 ECTS)

Para obtener este título hay que realizar al menos 12 créditos del módulo de Afectos y conocimiento situado (la asignatura Metodologías de investigación y epistemologías situadas 6 ECTS + 6 ECTS optativos) y 4 créditos de cualquiera de los módulos.

### Diploma de Especialización en Prácticas Artísticas (32 ECTS)

Para obtener este título hay que realizar 18 créditos obligatorios del Módulo Prácticas Artísticas (las asignaturas Laboratorios de creación, Proyecto colectivo y el TFE), y 14 créditos optativos, al menos 8 del módulo de Prácticas Artísticas (talleres con artistas), y 6 créditos de cualquiera de los módulos.

### Máster Propio en Prácticas Artísticas y Estudios Culturales: Cuerpo, Afectos, Territorio (62 ECTS)

Para obtener este título hay que realizar las tres asignaturas obligatorias (Metodologías de investigación y epistemologías situadas 6 ECTS, Laboratorios de creación 6 ECTS, Proyecto colectivo 6 ECTS), 38 créditos optativos de cualquiera de los módulos y el Trabajo Fin de Máster (6 ECTS).

| Módulo | Asignaturas | Obligatoria / Optativa | Horas lectivas | Créditos |
|---|---|---|---|---|
| >c Género y Visualidades | - Cultura visual y género I | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Cultura visual y género II | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Intervenciones feministas en el arte y la cultura I | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Intervenciones feministas en el arte y la cultura II | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Prácticas artísticas y conocimiento situado | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Cuerpo, presencias y representaciones | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Metodologías de investigación y epistemologías situadas: feminismos, afectos y territorio | Obligatoria presencial | 48 | 6 |
| >t Territorio | - Ecología y fenomenología | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Estudios culturales vascos I | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Producción artística-cultural y ruralidad | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Estudios culturales vascos II | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Ecologías culturales | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Territorio y memoria | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Metodologías de investigación y epistemologías situadas: feminismos, afectos y territorio | Obligatoria presencial | 48 | 6 |
| >a Afectos y conocimiento situado | - Hacia una estética de los afectos | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Afectos y prácticas artísticas | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Circulación de afectos y emociones I | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Circulación de afectos y emociones II | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Interdependencia, cuidados y sostenibilidad de la vida | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Trabajo en arte y cuidados | Opt. online | 16 | 2 |
| | - Metodologías de investigación y epistemologías situadas: feminismos, afectos y territorio | Obligatoria presencial | 48 | 6 |
| >< Prácticas Artísticas | - Proyecto colectivo | Obl presencial | 32 | 4 |
| | - Laboratorios de creación | Obl presencial | 48 | 6 |
| | - Bajo Cero. Talleres con artistas (8 talleres de 16 horas de duración cada uno) | Optativa presencial | 16 / taller | 2 |
| | **Trabajo Fin de Máster** | Obligatorio | | 6 |

## Objetivos

- Fomentar el pensamiento crítico a partir de la práctica y la investigación artística, con el fin de elaborar metodologías de trabajo y discursos teórico-prácticos propios.

- Desarrollar, comprender y aplicar conocimientos teóricos en torno a las prácticas artísticas y a los estudios culturales y visuales.

- Analizar y elaborar hipótesis de investigación relacionadas con las temáticas concretas del Máster (cuerpo, género, territorio, ecologías culturales, afectos) en relación a las prácticas visuales y culturales contemporáneas.

- Aplicar herramientas metodológicas transdisciplinares para el trabajo entre diferentes ámbitos de las prácticas artísticas, la teoría crítica y los estudios visuales y culturales.

- Perfeccionar herramientas y habilidades para la comunicación oral y escrita de un trabajo de investigación en el ámbito del arte.

- Profundizar en la importancia que tienen las prácticas artísticas y la cultura visual en el pensamiento contemporáneo.

- Adquirir un conocimiento general del estado de las prácticas artísticas contemporáneas y de su interrelación con la teoría crítica y con los estudios culturales, cuestiones básicas para entender el arte en la actualidad.

## Metodología

El Máster combina la docencia en línea (síncrona y asíncrona) con la docencia presencial.

El módulo Prácticas artísticas es presencial y se articula en torno a 8 talleres intensivos dirigidos por artistas, y un Laboratorio de creación tutorizado por artistas y profesores de Bellas Artes. Además, el alumnado realiza un trabajo individual tutorizado por el profesorado del Máster (TFM) y un trabajo colectivo adscrito a una de las líneas de investigación del programa (Género y visualidades, Territorio, Afectos y conocimiento situado).

Los módulos Género y visualidades, Territorio y Afectos y conocimiento situado son mayormente en línea, y combinan las sesiones síncronas (presencia simultánea del docente y el alumnado) con las asíncronas (trabajo en línea por parte del alumnado: lecturas, actividades, ejercicios).

La asignatura "Metodologías de investigación y epistemologías situadas: feminismos, afectos y territorio", común a estos tres módulos, tiene una parte presencial, que si fuera necesario podrá cursarse también online.

Se proveerá al alumnado de las herramientas metodológicas necesarias para pensar críticamente las imágenes y las prácticas artísticas y culturales, en relación al entorno en que se generan, y desde una perspectiva situada. Se trabajará en el desarrollo de distintas metodologías de investigación, escritura y materialización de proyectos, que combinen propuestas y proyectos colectivos con el desarrollo de trabajos individuales.
La investigación, teórica y práctica, será entendida como compromiso colectivo con el entorno.



## Salidas profesionales

- Prácticas artísticas
- Comisariado de exposiciones
- Gestión cultural y artística
- Crítica del arte y la cultura
- Trabajo en museos y centros artísticos/culturales
- Educación artística
- Investigación artística y/o académica
- Docencia

## Dirección académica

La dirección académica del Máster está conformada por:

- Maite Garbayo Maeztu (Universitat Oberta de Catalunya, Estudios de Artes y Humanidades).
- Amaia Arriaga Azkarate (UPNA, Dpto. Ciencias Humanas y de la Educación).
- Iñaki Imaz Urrutikoetxea (EHU/UPV, Dpto. de Pintura)

Oskia Ugarte Abarzuza, Betisa Ojanguren San Millán, Nerea de Diego Murillo, Elisa Fernández Arteta (dirección del Centro Huarte), completan la comisión académica.

## Profesorado

El equipo docente que se determinará próximamente, estará conformado por artistas y pensadores/as de reconocido prestigio en su ámbito.

## Proceso de admisión

Para realizar la matrícula es necesario entregar la siguiente documentación:

- CV o portafolio de artista.
- Carta de motivación en la que se exponga el interés en el programa de estudios, las expectativas hacia el programa y la relación con la trayectoria artística/académica personal.
- Título de grado o equivalente*

En la selección se dará prioridad al alumnado procedente de Licenciaturas / Grados afines.

*El alumnado de último curso de grado de cualquier universidad podrá inscribirse sin haber finalizado sus estudios. La persona aspirante deberá presentar el título universitario antes del inicio del curso.

## Becas

El Centro Huarte concede becas a estudiantes residentes en Navarra para cubrir parte del importe de la matrícula. Los criterios para la adjudicación de las becas se harán públicas próximamente en la web:
**www.centrohuarte.es/master**

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

www.centrohuarte.es/master